

# DUIN BIZITZEKO ESKUBIDEA

BALDINTZARIK GABEKO OINARRIZKO ERRENTA



# LARRUN #275

# ABERASTASUNA BANATZEKO URRATS ERABAKIGARRIA

EGILEA | **XABIER LETONA BITERI**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

**B**izkaian, Gipuzkoan edo Araban urtebetetik gora bizi bazara eta 18 urtetik gora badituzu, hilero 900 euro jasotzeko eskubidea izango duzu, beste inongo baldintza barik. 450 euro jasoko dute 4 eta 18 urte arteko herritarrek eta 4 urtetik beherakoek 270 euro. Ados egongo zinateke? Printzipioz gaitza dirudi halako eskaintza bati ezezkoa ematea, baina erreala da edo ipuin bati buruz ari gara?

Iragan maiatzaren 5ean, proposamen hori egin zuen Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errentaren (BGOE) Herri ekinaldi legegilea

Eusko Legebiltzarrerera eraman zuen gizarte ekimenak, horretarako 20.075 sinadura bildu ondoren. EAJk, PSEk, PPK eta Voxek atzera bota zuten gaiaz eztabaidatzeko aukera, eta EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek alde egin zuten.

Proposamenaren helburua zen pobreziaren aurkako egungo politikekin amaitzea eta BGOE finkatzea, herritar guztiak duintasunez bizi ahal izateko. EAJk eta PSOEk adierazi zuten nahiago zutela pobreziaren aurkako egungo erreminten erreformaren bidetik jotzea. Gaia indarrez dator, ertz ugari ditu, eta horiei helduko diegu datozen orrialdeetan.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA** · ARGIAren 2.784 zenbakiarekin banatua.

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2022ko ekainaren 26a

---



©RENTABASICA.EUS

**E**z da oraintsuko kontua Baldintzarik Gabeko Oinarrizko Errenta –oinarrizko errenta unibertsala ere deitzen dute, besteak beste–, aldarrikapenak hamarkadak daramatza plazan kuku eginez, baina sarri giro akademikoetan eta herritarren artean ideia barreiatzea lortu gabe. Orain, ostera, inoiz baino gehiago ari da berba egiten gaiaz. Aipatu dugun proposamenaz gain, 2013an ere egin zen kanpaina zabala Europa mailan eta orain txer bertan milioi bat sinadura biltzen aritu dira Europako Legebiltzarrak lege gisa jorra dezan eskatzeko. Korsikako Asanbleak ere maiatzaren 9an uhartean ezartzea proposatu zuen. 2014an, halaber, Podemosek Europako Legebiltzarreko hauteskunde programan sartu zuen; ez, ordea, gobernurako bidea ireki dien azken hauteskundeetan. Orain arte bederen, gobernu aukeretatik zenbat eta urrunago, are eta samurrago bultzatzen da oinarrizko errenta hori, baina sarri atzera egiten da gobernu aukeretatara hurbiltzean. 2017ko Frantziako Estatuko lehendakartzarako PSEko hautagi Benoît Hamon-ek 760 euroko

errenta unibertsala proposatu zuen herritar guztientzat. Helduko diogu geroxeago atal horri. Aurrerantzean kontzeptua oinarrizko errenta izendatuko dugu (OE).

Hamaika lekutan ari dira esperimentzia pilotuak egiten, bai Europan bai munduan barrena, besteak beste Katalunian. Eta agian Suitza da gaiak hartu duen tamainaren adierazle esanguratsuenetakoa, 2016an lehenbizikoz munduan estatu batek erreferendumera eraman baitzuen herrialde osoan 2.400 euroko oinarrizko errenta izatea ala ez erabakitzea: herritarren %76k uko egin zion. Hemen ez dugu emaitzaren azterketan saskonduko, baina sustatzaileak pozik ziren, inongo alderdi politiko handik ekimena sostengatu barik, herritarren %24 alde agertu zelako.

Suitzan oinarrizko errenta ezartzea babesten zutenen artean ziren, adibidez, Yanis Varoufakis Greziako Finantza ministro ohia edo Salvo Jizek filosofo esloveniarrak, baina baita Klaus Schwab Davoseko Munduko Foro Ekonomikoaren presidentea

ere. Ohikoan ezkerreko posizioetatik bultzatu da oinarrizko errenta, baina ez da guztiz harrizkoa aberatsenen foro horretako lehendakariaren aldekotasuna, kontuan hartuta oinarrizko errentaren defentsak hastapenetik duela adar liberala eta azken urteetako neoliberal ezagun asko haren alde agertzen ari direla.

Sarean barra-barra aurki daiteke gaiari buruzko informazioa, eta han ere arrantzatu dugu, baina batez ere hiru liburu erabili ditugu *Larrun* hau janzteko. Gorka Morenoren *Crisis y reconstrucción del Estado de Bienestar. Las posibilidades de la Renta Básica de Ciudadanía*. [Ongizate Estatuaren krisia eta berreraikuntza. Herritartasunaren Oinarrizko Errentaren aukerak] (Eusko Jaurlaritza, 2008). Daniel Raventósen *La Renta Básica. ¿Por qué y para qué?* [Oinarrizko errenta. Zergatik eta zertarako?] (Catarata, 2021). Eta Julen Bollainen *Renta básica: una herramienta de futuro* [Oinarrizko errenta: etorkizuneko erreminta] (Milenio, 2021). Azken hori, Bollainek iaz EHU defentitutako doktoretza-tesiarene emaitza da.

## HERRITAR GUZTIEN ESKUBIDE

Baina zer da edo zertaz ari gara zehatz mehatz oinarrizko errenta (OE) aipatzean? Eskubide gisa eta legez araututa, herritar guztiei ohikotasunez eta baldintzarik gabe bideratutako diru kopuru zehatza litzateke oinarrizko errenta, urte osorako eman litekeena edo hilero banatuta, normalean soldatarekin egiten den moduan. Haren helburua pobrezia ezabatzea da eta horretarako, gutxienez herrialdearen pobrezia marra finkatuta dagoen diru kopuruaren adinakoa beharko luke izan. Txiro edo aberats, herritar guzti-guztiek jasoko lukete, inongo baldintzarik gabe, edo baldintzarik izatekotan, dagokion herrialdearen herritartasuna frogatzea litzateke. Bereiztu egin beharko litzateke zein dagoen pasoa herrialde batean eta zeinek erabaki duen bertan gertatzea, eta horretarako hainbat baldintza egon liteke, adibidez urtebeteko egonaldia frogatu beharko lukeela OE jaso nahi duen herritarrak. Esperientzia txiki asko egin da munduan, baina oraindik ez da inoiz lortu aipatutako OEren gisakoa inongo herrialdetan aurrera ateratzea.

LARRUN honetan, Oinarrizko Errentaren Munduko Sarea (BIEN, ingelezko sigletan) osatzen dutenen ikuspegia azalduko da nagusiki, haiek baitira munduan barrena oinarrizko errentaren akuilatze landuena egiten ari direnak. Euskal Herrian, aipatu dugun Eusko Legebiltzarrerako antolatu den ekimen herritarrak, Espainiako Estatuan Red Renta Básica elkarteak edo Frantziakoan Mouvement Français Pour un Revenu de Base-k bat egiten dute BIENen ikuspegiarekin.

Molde askotako OE sistemak ezar daitezke, baina denetan ezaugarri batzuk amankomunak dira. Bat, dirutan egingo da eta ez bestelako hondasun edo zerbitzutan (janaria, ura, elektrizitatea...). Honek askata-

sun handiagoa emango dio pertsonari, diru hori nola gastatu erabakitzeko. Bi, baldintzarik gabekoa da, eta gaur egungo pobrezia errenta sistemetan ez bezala, ez da ezer frogatu behar administrazioaren aurrean hura jasotzeko; demostratua dago errenta horiek baldintzekin

jasotzen direnean, haien beharrendaren herritarren ehuneko handi baten ez dituela jasotzen (geroaxeago ukituko dugu zehatzago alor hori). Hiru, unibertsal da, hau da, herritar guztiek jasoko dute, ume, gazte edo adinekoa izan, ohikoan adingabeek gutxiago eta helduek gehiago. Lau, norbanakoari dagokio, eta hori oso garrantzitsua da, segurtatu nahi baita pertsona bakoitzak jasotzea eta ez familia buruak –ohikoan gizonetzkoa–, horrek gainerako familia-kideentzat dakarren menpekotasun arriskuarekin. Eta bost: zerga bidez finantzatu da, horretarako zerga erreforma sakona gauzatu. Funtsen, OE ahalbidetu beharko luke edozein pertsonak askatasunez bizitzeko behar diren gutxieneko hondasun materialak izatea. Aurrerago ikusiko ditugu munduan egin diren hainbat esperientzia.

### ZERGATIK ORAIN?

Oinarrizko errentak zuztar luzeak ditu denboran, baina gaiak bereziki hartu du indarra 2007-2008ko krisi handiaren atzaparkaden ondoren. Harrezkero txiro eta aberatsen arteko arrakala handitu egin da mundu osoan, eta etengabe hazten jarrai-



**ESKUBIDE GISA ETA  
LEGEZ ARAUTUTA,  
HERRITAR GUZTIEI  
OHIKOTASUNEZ ETA  
BALDINTZARIK GABE  
BIDERATUTAKO DIRU  
KOPURU ZEHATZA  
LITZATEKE OINARRIZKO  
ERRENTA, URTE  
OSORAKO EMAN  
LITEKEENA EDO HILERO  
BANATUTA**



ECUADOR ETXEA



©RENTABASICAELUS

Oinarrizko errenta lantzeko 22.075 herritarren sinadurak eraman zituzten Eusko Legebiltzarrera iragan maiatzean. EH Bilduk eta Unidas Podemosek aldeko botoa eman zuten, eta beste lau indarrek kontrakoak.

tzen duen lan prekaritateak duintasunez bizitzeko estalpeak birrindu ditu. COVID-19ko garaiak ere bul-tzakada eman dio, ahulenen zaur-garritasuna berriz jarri duelako oso agerian, eta gutxitan legez egin delako berba pertsona eta gizarteengizateari buruz. Testuinguru kez-kagarri horietan, OEren olatuak indarra hartu du.

Horrez gain, teknologiaren garapenak eta automatizazio prozesuek gero eta lan indar gutxiago eskatzen dute eta datozen urteetan enpleguak nabarmen behera egingo duela aurreikusten da. Lanik gabe geratu-ko diren herritarrek beharko dute zerbait pobrezian ez erortzeko, eta robotizazioak ekarriko duen aberas-tasuna banatzeko modu gisa ikusten da OE. Azken finean, 70eko eta 80ko hamarraldietan indarra hartutako neoliberalismoak ongizate gizartearen -hura eraiki zen lekuetan behin-tzat- oinarrizko zutoinak higatzen jarraitzen du, eta aberatsenen eraso horretatik babesteko ezkutu bat litzateke OE.

Edozein kasutan, honek ez luke ekarri behar egungo ongizate estatuaren inongo galerarik, askok iragartzen dioten moduan; aitzitik, OE defenditzen dutenen iritziz, ongizate estatuaren beste zutoin handi bat litzateke, pertsonen gutxieneko bi-ziraupena eta duintasuna bermatzeko. Egun ongizateari eusten dioten aurrekontuetatik euro bakarra ere

ez litzateke ukitu behar oinarrizko errenta unibertsalera bideratzeko.

### POBREZIA GORA

Mundu mailan aberastasuna gero eta esku gutxiagotan ari da pilatzen, eta herrialde garatuetan klase ertainek kolpe handia jaso dute azken hamarkadetan. Hala ere, muturreko pobrezia asko jaitsi da mundu mailan: 1990 eta 2015 artean 1.900 milioi pertsonatik 730 milioi pertsonara (*Our world in Data* publikazio digitalaren datuetan). Egoeraren hobetze hori bereziki eman da Asia mendebaldean eta Itsas Bareko eskuldeetan. Aitzitik, Afrikan, Saharaz behegoko eremuetan muturreko pobrezia okertzen jarraitu du urte horietan.

Behin hori esanda, argi dago txiro eta aberatsen arteko arrakala gero eta handiagoa dela, bereziki azken horiek gero eta gehiago metatzen dutelako. Mundu guztiko hamaika ikergunek hala adierazten du. Oxfam-ek 2020an argitaratutako txostenaren arabera, planetako biztanleriaren %1ek 6.900 milioi pertsonak baino aberastasun gehiago pilatzen du. 2019an, 2.153 milioidunek 4.600 milioi pertsonak baino gehiago zuten. Munduko 22 aberatsenek, Afrikako emakumezko guztiek baino diru gehiago dute. Edota Espainiako Estatuan biztanleriaren %10 aberatsenak, gainerako %90ak baino aberastasun gehiago du.



Aberastasuna batzuen eskuetan pilatzeko baldintzak gaur egun egokiagoak dira duela mende erdi baino. Horretan ere eztabaida gutxi dago, debatea egoerari aurre egiteko proposamenetan dator, bai ezker-eskuin klasikoan bai ezkerrean. Honek guztiak erakusten du aberastasuna egon badagoela, baita oinarrizko errenta bat jartzeko ere, baina horretarako bideak eta, batez ere, adostasunak falta direla.

### BESTELAKO POBREZIA POLITIKEN ALDE


Pobrezia ezabatzea da Mendebaldeko gizarte gehienetan ezarrita dauden pobreziaen aurkako politiken helburua. Espainiako Estatuan EAEn ezarri zen lehenbiziz gisa horretako dirulaguntza bat 1989an. Ondorioz, gaur egun, hainbat baldintza betetzen dituen herritarrak EAEn 727 euro jasotzen ditu hileko, bi pertsona badira familia edo elkarbizitza unitatean 934 euro, eta 1.033 euro hiru kidezik gorako unitateetan. Nafarroan pertsona bakarrak 658 euro etxeratzen du, 888 euro bi pertsonako eta hortik gora 1.053 euro. Kasuisteketan arabera, badira kopuru gehiago ere, baina oinarrizko dirulaguntzak horiek dira. OE gaitan aditu eta sustatzaile ezaguna den Daniel Raventós unibertsitateko irakasle katalanaren esanetan, estatuko errentarik oparoenak eta Europako duinenetakoak dira Hegoaldeko bi horiek. Eta hala ere, dioenez, ez dira gai izan sorreran zuten helburuei aurre egiteko, hau da, pobrezia ezabatu edo modu nabarmenean

arintzeko, eta horregatik bada ordua politika horiek aldatzeko.

2020ko Euroestateko datuetan -eta hauek baino datu okerragoak badira beste neurketa batzuetan- Espainiako biztanleriaren %20,7 pobrezia arriskuan zegoen (Frantzia %13,6), eta 16 urtetik beherakoen artean txiro gehien duen hirugarren herrialdea da Espainia, Errumania eta Bulgariaren ondoren. Guztira, EBN pobrezia handiena duen bosgarren herrialdea da. 2019ko datuetan Hego Euskal Herrian herritarren %13 zegoen pobrezian, estatuko daturik txikiena. 2010ean Espainiako langabetuen %80k diru estaldura mailaren bat zuen, baina 2017rako %56ra jaitsi zen babes maila hori.

Daniel Raventósek oinarrizko desberdintasuna ikusten du baldintzapeko errentak eta oinarrizko errenta defendatzen dutenen artean: askatasun liberala eta askatasun errepublikarraren artean dagoen desberdintasuna. Baldintzapeko laguntzen logika zera da, haren esanetan: bai lanik gabe gelditu delako bai lan egin arren ez duelako pobrezia langa gainditzen (egungo datuekin, Espainiako langileen %15), porrot egin duenari lagundu egin behar zaio. Laguntza baldintzatu honek askatasunaren galera dakar, laguntza horiek eskuratzeko hamaika baldintza bete behar delako.

Kontrara, oinarrizko errentaren logika -azaltzen du Raventósek- eskubidearena da, eta herritarrari hasieratik bermatuko dio bizitzeko gutxieneko errenta, herritar izate hutsagatik; hau da, munduko aberastasuna modu sozialean ekointzi da eta, beraz, komeni da hura inongo bazterketa barik banatzea: "Baldintzarik eza, giza eskubideen eta herritartasunaren hizkuntza da; baldintzapekoa, aldiz, erreguarena eta mendekotasunarena". Azken finean, bere ustez, askatasunak eraso asko jasaten ditu bizitza sozialean,



DANI BLANCO

eta mehatxu horien indarra, bizitzeko ditugun baldintza materialen araberakoa da.


### EGUNGO EREDUAREN AGORPENAZ

Maiatzaren amaieran Eusko Legebiltzarrean herri ekimeneko proposamena aurkeztu zenean, argi ikusi zen badirela hainbat ikuspegi pobrezia aurkako egungo politikekin: EAJrentzat eta PSErentzat, adibidez, lantzen ari diren erreforma nahikoa izango da orain arte bete ez diren helburuei egokiago erantzuteko. Oinarrizko errentaren ekimenaren sustatzaileentzat, EH Bildu eta Elkarrekin Podemosentzat ez da nahikoa. Azken horiek agian ez da-

toz guztiz bat egin beharrekoetan, baina gutxienez argi dute egungo politiken mugak gainditu behar direla, eta nola egin jakiteko ezinbestekoa dela gaiak eztabaidatzea eta OE mahaiaren gainean jartzea.

Bollainek eta Raventósek, oro har, bost muga handi ikusten dizkiete egun banatzen diren gutxieneko errentei: aurrekontuen murrizketak, dirulaguntza horiek jasotzen dituztenek pairatzen duten estigmatizazioa, estaldura akatsak, kontrolak dakarren administrazio kostu handia, eta pobrezia tranpa, hau da, politika horiekin herritar askok ez duela egoera horretatik ateratzeko aukerarik.

EAEko egoerari begira jarri da



ESK sindikatuko kide eta aspaldian pobrezia politikaren behatzaile den Iñaki Uribarri. OEren Euskal Herriko bozgorailu aktiboenetakoa ere bada: "Ez da kudeaketan akatsak egin direla, ereduak berak egin du porrot". EAEko instituzioen baitan, pobrezia aurkako politikak hiru zutabe nagusi ditu: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria, eta Larrialdi Sozialeko Laguntzak. Uribarriren esanetan sistema honek pobrezia arriskuan dauden %30 kanpoan uzten ditu, hamaika arrazoi tartean ez dituztelako eskatutako baldintzak betetzen; eta prestazio horietara iristen ez direnetatik %52 inguru enplegua duen jendea da, "jakina, enplegu oso prekariora". Dirulaguntza horiek eskuratzen dituzten artean, erdiak lortzen du pobrezia gainditzea eta beste erdiak ez.

Azken urteetan *Sin Permiso* aldizkarian argitaratutako hainbat artikulutan irakurri ahal zaizkio gisa honetako azterketa eta balorazioak, eta horietan azaltzen du, halaber, bere aburuz non den pobrezia politikaren debatea gaur egun eta nola doazen murrizten dirulaguntza horiek. Ondorio zorrotzera iritsi da: "Eusko Jaurlaritzak ez dago prest EAEko pobrezia-arekin bukatzeko (...), dagokion aurrekontuarekin ahal dena egitera mugatuko da, eta muga hori 500 milioi eurotan dagoela uste dut". Laguntzak eskuratzeko baldintzez ere gogor dihardu: "Dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsonen Lanbideren kontrola ikaragarri inbasiboa gertatuko da, baita burokratikoagoa ere, administrazioarentzat garestiagoa, eta gero eta legez kanpokoagoa eta babesgabetsun handiagokoa".

Horregatik guztiagatik, Uribarri argi du egungo pobrezia politikaren eredu gainditzeko neurri egokia litzatekeela baldintzarik gabeko oinarriko errenta ezartzea. Erromoko Kultur Etxean (Erudio) emandako hitzaldian garatu zuen proposame-

naren bizkarrezurra eta interes handiagoa duenak sarean aurki dezake (*RBI, una política muy actual* / BGOI, gaurkotatzen handiko politika).



**LANIK GABE GERATUKO  
DIREN HERRITARREK  
BEHARKO DUTE  
ZERBAIT POBREZIAN  
EZ ERORTZEKO, ETA  
ROBOTIZAZIOAK  
EKARRIKO DUEN  
ABERASTASUNA  
BANATZEKO MODU GISA  
IKUSTEN DA OINARRIZKO  
ERRENTA**

**NEOLIBERALISMOAREN  
OINARRIZKO ERRENTA**

Gaur egun ezagutzen dugun moduan, hamarkadetako kontua da oinarriko errenta, baina azken bizpahiru mendeetan ideologia ia guztietatik eman zaie begiratua antzeko kontzeptuei, liberalismotik, sozialismotik, marxismotik, anarkismotik edo baita egungo neoliberalismotik ere. Ere horietatik guztietatik ere badira OEren aurkako posizio sendoak. Azken urteetan, adibidez, deigarri egin da munduko gizon aberatsenetakoa den Bill Gates OEren alde agertzea, eta berarekin bat egin izana Mark Zuckerberg-ek (Facebook), Jeff Bezos Amazoneko burua edota Elon Musk-ek, PayPal, SpaceX edo Teslako nagusia. Horiakin bat egiten du, halaber, munduko aberatsenak

biltzen dituen Davoseko Foroko sortzaile Klaus Schwab-ek. Eta makinatxo bat gehiago ere badira.

Baina ez da harrigarria korrante hori, beste ukitu batekin bada ere, Chicagoko Eskolako Milton Friedman berak 1962an baldintzatutako errenta bat ematea proposatzen baitzuen *Capitalism and Freedom* (Kapitalismoa eta askatasuna) lan ezagunean. Eta geroaxeagokoa da Lionel Stoléru-k Frantzia garatutako *Vaincre la pauvreté dans les pays riches*, 1974 (Pobrezia gainditzea herrialde aberatsetan).

Orduan, izan dezake onurarik munduko txiroentzat, tamainako tropel neoliberalistik defendatzen den proposamenak? Ez da samurra sinestea, eta OE beste muturretik defendatzen dutenen aburuz, aberatsenen ikusmolde horren azpian ongizate gizartearen desegite nahia dago. Iñaki Uribarri Erromoko Kultur Etxean egindako hitzaldian zioenez, neoliberalismoa ongizate gizartea suntsitzeko asmoz jaio zen duela lau hamarkada. Asko suntsitu du, baina ez guztiz, eta orain erabat desegiteko aukera du, neoliberalismoarentzat ongizate estatua ekonomikoki bideraezina izateaz gain, hazkunde ekonomikoa eta aurrerapen soziala oztotatzen baititu.

Uribarriren esanetan, neoliberalen plazaratu dituzten proposamenetan, oinarriko errentan herritar guztiei emango litzaieke diru kopuru bat, eta horrekin erosi beharko lituzkete gaur egun ongizate gizarteak eskaintzen dituen zerbitzuak, hala nola osasunari, hezkuntzari edota pentsioei dagozkienak. Ongizate sistemaren desagerpenak sekulako lurraldea irekitzen dio inbertsio kapitalistari, eta bide horretatik haren desagerpenak zergak jaitea ahalbideetako luke. Neoliberalismoak garrantzi handia ematen dio robotizazioa dela eta emango den enplegu galerari, baina ez zentzu txarrean: "Enplegu gu-

txiago eta, beraz, plusbalia txikia-  
goa –dio Uribarrik–, baina horrek  
ez dio axolarik kapitalari. Langa-  
bezia handiagoarekin, erraztasun  
handiagoak ditu langileriari nahi  
dituen baldintzak inposatzeko, hori  
da egiazki interesatzen zaiona". No-  
rabide horretakoak ziren Charles  
Murray ekonomistak bere azken  
liburuetako batean egiten zituen  
proposamenak, eta titulua ere aski  
adierazgarria da: In Our Hands: A  
Plan to Replace Welfare state (Gure  
Eskuetan. Ongizate Estatua orde-  
katzeko plana).

Orduan, zein izango da neolibe-  
ralek proposatuko duten oinarriz-  
ko errenta? Uribarrik argi du: "Ez  
herritarrari bizitza duina emateko  
adinakoa, baizik haiek lehen aipa-  
tutako zerbitzuak ordaintzeko kal-  
kulutik aurreikusten dutena. Gure  
OE eredia horren guztiz aurkakoa  
da". 1986an sortu zen Oinarrizko  
Errentaren Munduko Sareak ere  
OEn beste muturrean kokatu du  
bere burua, OE eta gaur egun es-  
kaintzen diren beste zerbitzu pu-  
blikoak batera ikusten ditu pobrezia  
desagerrarazteko estrategian.

## "ETA HORREK ZER BALIO DU DIRUTAN?"

Oinarrizko errentari buruz aritzean  
galdera giltzarrietakoa da honakoa:  
"Eta horrek zer balio du dirutan?".  
Hau da, gure egungo Mendebaldeko  
gizartearen ikuspegitik posible da  
horrelako errentaren finantzazioa?  
Egoki erantzuteko, garrantzitsue-  
netakoa litzateke zenbateko OEn  
buruz ari garen, ez baita berdin  
650 eurokoa edo 980 eurokoa iza-  
tea. Ikerketa asko egin da, eta so-  
sei so eginda, finantzazioa posible  
da. Egindako azterketa gehienetan

## Kostua eta finantzazioa PFEZaren arabera

INKESTAN ANTZEMAN GABEKO PERTSONENTZAT				
	Pertsona kopurua	PFEZean antzemandakoak	PFEZean antzeman gabekoak	Zenbatekoa
18 urtetik beherako biztanleria	7.819.887	6.515.781	1.304.106	1.948,59
Biztanleria heldua	35.926.543	27.774.210	8.152.333	60.906,08
<b>GUZTIRA</b>	43.746.430	34.289.991	9.456.439	62.854,67
Kendutako dirulaguntzen aurrezpena				92.222,29
PFEZean antzeman gabekoen kostu totala				-62.854,67
Soberakina				29.367,62

2017an Jordi Arcarons, Daniel Raventós eta Lluís Torrens-ek egindako azterketa da. Espainiako Zerga Ikerketaren Institutuaren datuekin egin zen, PFEZaren alorrean 2010ean aitortutako ia bi milioi aitopeneko lagin batekin. 43,7 milioi pertsonak jaso beharko lukete oinarrizko errenta Espainian eta horietatik 34,3 milioi pertsonen errenta aitopenak aztertu ziren lan honetan. Hau da, 9,4 milioi herritar azterketatik kanpo geratu ziren, zerga aitopena egiteko derrigorrik ez zutelako. Zein zenbatekorekin kalkulatu dute diru kopurua? EBren pobrezia langaren %60arekin: (2010eko garaira eramanda, PFEZ lagina sasoi hartakoa da eta): 7.471 euro urteko helduentzat –hileko 622,5 euro– eta 1.494 euro urteko adingabeentzat. Aitopena egin zuten guztiei PFEZ tipo bakarra jarri zitzaion, %49koa.

INKESTAN ANTZEMANDAKO PERTSONENTZAT		
	PFEZean antzeman gabekoak	Zenbatekoa
18 urtetik beherako biztanleria	6.515.781	9.735,88
Biztanleria heldua	27.774.210	207.501,12
<b>GUZTIRA</b>	34.289.991	217.237,01
Egungo PFEZekin bildutako kuota		67.807,53
PFEZean antzemandakoen kostu totala		217.237,01
Finantzatu beharrekoa		285.044,53

**Iturria:** INE, AEAT, Arcarons, Raventós eta Torrens (2017), eta Raventos (2012)  
**Zenbatekoa:** milioka eurotan



zerga bidez estaliko litzateke kostua –"edo inbertsioa", diote OE zaleek–, eta horretarako hainbat proposamen daude.


2017an Jordi Arcarons, Daniel Raventós eta Lluís Torrens ekonomialari katalanek azterketa estatistikozorrotza plazaratu zuten OERI buruzko proposamen zehatza eginez. Espainiako Zerga Ikerketaren Institutuak utzitako datuak erabili zituzten, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) alorrean 2010ean aitortutako ia bi milioi aitortpeneko lagin bat hain zuzen, non

ez ziren kontuan hartzen EAE eta Nafarroa, lurraldeok beren zerga sistema propioa dutelako. Raventósek berak azaltzen du proposamena bere azken liburuan. 2021era arte ere osatuz joan dira datuok Espainiako Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak emandako datuen gainean egindako ikerketekin. Horiei gehitu zaizkie, esate batera, Julen Bollain Mondragon Unibertsitateko irakasleak egindako lanak. Azken honek idatzitako liburua –Renta Básica: una herramienta de futuro– erabili dugu aipatutako finantzazio

proposamena hemen azaltzeko.

Ikerketan zehazten denez, 43,7 milioi pertsonak jaso beharko lukete OE Espainian eta horietatik 34,3 milioi pertsonen errenta aitortpenak aztertu ziren lan honetan. Hau da, 9,4 milioi herritar azterketatik kanpo geratu ziren, zerga aitortpenik egin ez zutelako. Nola kalkulatu dute oinarrizko errentarako diru kopurua? Europar Batasunean biztanleriaren errenten batez bestekoaren %60an dago pobrezia langa, eta hori 2010eko garaia eramanda –PFEZ lagina sasoi hartakoa da–, OE 7.471 eurokoa litza-

## Tipo efektiboak



Errenta osoaren hamarrekokoak	Oinarrizko errentaren aurretik	Oinarrizko errentaren ostean
%10	% 0,15	%-209,23
%20	%0,35	%-59,43
%30	%0,86	%-36,77
%40	%3,28	%-19,95
%50	%6,04	%-9,38
%60	%7,86	%-1,72
%70	%9,84	%6,23
%80	%12,53	%15,96
%90	%15,29	%24,32
%95	%18,38	%29,98
%98	%22,07	%35,02
%100	%28,03	%42,56

Ezkerreko grafikoan ikusten da herritarren %75ak oinarrizko errentaren aurretik zuena baino diru gehiago izango duela (tipo negatiboa duten guztiek), eta %25 aberatsenak aurretik baino gutxiago, hau da, azken hauek finantzatu dute aurrekoen oinarrizko errenta. Proposamenean sartzen baditugu laginean sartu ez diren 9,4 milioi pertsona horiek (ikusitako aurreko orrialdeko kuadroa, eta testuan Horrek zer balio du dirutan? atala, emaitza antzerakoa da, eta herritarren %20 aberatsenak finantzatu du %80a.

**Iturria:** Arcarons, Raventós eta Torrens (2017).  
Oinarrizko Errentaren mikrosimulatuak.

Beste era batera ikusita, eskuineko kuadroan adierazten da zein zerga tipo ordaintzen zuen populazioaren hamarrekoko bakoitzak oinarrizko errentaren aurretik eta ondoren: adibidez, %10 txiroenak aurretik %0,15, eta ostean %-209 (negatiboa izateak esan nahi du hamarrekoko horretako herritarrek diru transferentzia jasotzen dutela). Hau da, biztanleriaren lehen 7 hamarrekokoak irabazten aterako liriteke, eta 8.a, 9.a eta 10.ena galtzen.

teke urteko pertsona helduentzat –hileko 622,5 euro– eta 1.494 eurokoa urteko adingabeentzat.

Hiru ezaugarri nagusi ditu OEK. Lehenik, beste edozein arrazoirengatik jasotzen den dirulaguntza ordezkaturako du errenta horrek, beti ere lehendik jasotakoa baino handiagoa bada; txikiagoa izanez gero, dagokion dirulaguntzarainoko diru diferentzia eskuratuko du, hau da, lehen jasotzen zuena. OErekin, gaur egun estatuak banatzen dituen dirulaguntza guztiak bertan behera geratuko dira, eta horren ondorioz, 92.222 milioi euro aurreztu. Bigarrenik, OEtik jasotako dirua zergeetatik libre dago. Eta hirugarrenik, OE autofinantzatzen da, hau da, ez die estatuaren egungo aurrekontuei eragingo. Azken puntu honetan indar handia jartzen dute OE zaleek, aurkarien aldetik argudiatzen baita estatuaren beste alor batzuetatik diru kopuru handiak desbideratuko lireratekeela OE finantzatzera.

Beraz, azterketatik kanpo geratu ziren 9,4 milioi pertsonen oinarriko errenta finantzatzeko 62.954 milioi euro behar dira, eta gainerako dirulaguntzak ezabatzeetik aurretutako 92.222 milioi euro daudenez, oraindik 29.367 milioi euroko soberakina dago. Horrez gain, beste 34,3 milioi pertsonen errenta finantzatzeko 288.044 milioi euro behar dira. Hori lortzeko zerga erreforma egin eta PFEZ tipo bakarra aplikatuko zaie errenta guztiei (txikiei eta handiei), %49koa. Zein da ondorioa aberastasunaren banaketari dagokionez? Egoera berrian, herritarren %75ak lehen zuena baino diru gehiago jasoko du, eta %25ak gutxiago, hau da, azken hauek finantzatzeko dute aurrekoen OE. Proposamenean sartzen baditugu laginean sartu ez diren 9,4 milioi pertsona horiek, emaitza antzerakoa da, eta herritarren %20 aberatsenak finantzatzeko du gainerako %80a. Proposamen horrekin po-

brezia ezabatu egingo da eta Espainiako Estatu munduko herrialde berdinzaleenen artean kokatuko da.



**KATALUNIAN 5.000 BAT  
PERTSONA HARTUKO  
DITUEN PLAN PILOTUA  
EGINGO DA 2023AN ETA  
2024AN. GENERALITATEAK  
URTEKO 50 MILIOI EURO  
INBERTITUKO DITU  
SAIOAN. OINARRIZKO  
ERRENTA 700-800  
EUROKOA IZANGO  
DA HELDUENTZAT  
ETA 300 EUROKOA  
ADINGABEENTZAT**

### NEURRI ZUZENTZAILEEKIN

Azaldutako oinarri horren gainean, aipatutako ekonomilariak beste proposamen batzuk ere egin dituzte 2017tik aurrera, oraingoan datu eguneratuekin eta, batez ere, oinarriko proposamen orokorrean sortzen diren hainbat albo-kalte zuzentzeko mekanismoekin. Hiru proposamen egiten dituzte. Lehena da gutxien duten %80ko familietan inork ez dezan galdu, 8.815 euroko errentarekin –pobreziaren langa– eta %46,83ko PFEZ tipo bakarrarekin: 50.656 milioi euro behar dira eredu hori finantzatzeko (BPGaren %4,3). Familien %80,8 irabazle edo lehen bezala geratzen da eta %19,2k errenta galtzen du, OEn indarrean jarri baino lehenagoko egoerarekin konparatuta.

Bigarren proposamena 8.400 eurokoa da urteko helduentzat eta 1.680 euro urteko adingabeentzat. Zuzenketaren helburua da %80ko langatik behera diren herritarretatik bakarrak ere ez dezala ezer galdu. PFEZ tipoa %49,05koa da, eta galtzaile eta irabazleen proportzioa aurreko ereduaren antzekoa. 76.739 milioi euro eskatzen ditu, hots, BPGaren %6,5. Eta hirugarren proposamena bizitzeko gutxieneko diru-sarrerarekin lotu dute: 491 euro inguru helduentzat eta %29,19ko PFEZ tipo bakarrarekin. Guztira 26.671 milioi euro (BPGaren %2,2) behar ditu eta, bistan da, ondorio apalagoak ditu berdintze helburuetan. Etxeen %12,3 bakarrik aterazen da galtzaile. Bollainek dioenez, azpimarratzekoa da hiru eredu horietan gizonezkoengandik emakumezkoengana dagoen errenta transferentzia, bereziki bigarrenean (18.745 milioi euro) eta lehenean (13.483 milioi euro).

EH Bilduk Gipuzkoako Diputazioa kudeatu zuen garaian (2011-2015), oinarriko errentaz egindako simposiumean Jordi Arcarons katedradunak foru erakundearen enkarguz egindako ikerketaren berri eman zuen. Gipuzkoako 450.000 errenta aitorten aztertuta, ondorioztatu zuen herrialdean adineko herritar orok hilabetean 658,5 euro –eta adingabeek 131,7 euro– jasotzea bideragarria zela. Arcaronsen kalkulak PFEZ zergan %40,52ko tasa bakarra ezarrita daude eginak. Desberdintasun ekonomikoak orduko PFEZ progresiboarenak baino 2,5 bider gutxiago lirerateke eta gipuzkoarren %75aren egoera ekonomikoa hobetuko litzateke. OE hori finantzatzeko 4.857 milioi euro behar ziren: 1.518 milioi euro egun herritarrek jasotzen dituzten prestazioetatik etorriko lirerateke eta gainerakoa zerga erreformatik.

Edozein kasutan, OE zaleen artean argudiatzen dute diru kopuru

horiek ez liratekeela gastu moduan ikusi beharko, inbertsio gisa baino; eta azkenean, gainera, dirutza horiek agertzen ari direnak baino txikiagoak liratekeela. Scott Santtens ikerlari estatubatuarrak egindako ikerketaren arabera, berak aztertutako eremuan kostua guztira 3 bilioi dolarrekoa zen, baina azken kostua 900.000 milioi dolarrekoa. Azken buruan, Santtensen esanetan, herritarrek osasun hobea lukete, delinkuentzia gutxiago legoke, kartzetan herritar gutxiago... eta horien ondorioz, estatuaren gastuak murriztuko lirateke hamaika alorretan. Hau da, hark dioen moduan, "pobrezia ez da doan ateratzen".

## OE-REN AURKA

OEren aldeko argudio guztiak ez ditugu aipatu eta aurkakoekin ere beste hainbeste egingo dugu, asko eta era askotakoak dira eta. Kapitalismoan badira OEren aldeko ahotsak eta, ikusi dugun moduan, ez nolanahikoak. Hala ere, eskuarki, liberalentzat OE kaltegarria litzateke

gizartearentzat. Nagikeria eta parasitismoa sustatuko litzuzke, gizarte guztia kaltetuz (ezkerrean ere badira horrekin bat egiten duten posizioak). Oro har, eskuman uste dute ez dela egiazkoa pentsatzea OEek herritar gehienek errenta handituko lukeela eta ekonomian denak berdin jarraitu. *The Economist* aldizkari liberalak dioenez, gisa honetako proiektu bategi ondorio handiak izango litzuzke prezioetan, soldatetan, lanaren antolaketan, ekoizpenean, lehiakortasunean eta hazkunde ekonomikoan. OE bakarrik ordaindu ahalko litzateke zerga igoera handi batekin, eta horrek distortsio handiak sortuko litzuzke ekonomian.

Justizia errepublikarra oinarri, Daniel Raventósék indar handia jartzen du OE sistema justutzat defendatzerakoan. Beste muturrean dagoen Juan Ramón Rallo ekonomialari neoliberalaren iritziz, OE "erabat injustua da". Rallok 2015ean idatzi zuen *Contra la Renta Básica* (Oinarrizko errentaren aurka) liburua, eta bertan azaltzen du zergatik


den injustua OE: "Herritar bakoitzari ahalbideratzen diolako indarrez bereganatzea beste herritar batzuek ekoiztu dutenaren zati bat". Haren ustez, herritarrak bere bizimodua bilatu behar du, eta izatekotan, azken neurri gisa, estatuak izan beharko luke azken babes bat gutxieneko diru-sarrerera moduan.

Eta migratzaileak? Eta dei-efektua? Nola ez, OEren aurkako jarreretan ezin ziren falta izaera xenofoboko argudioak, gutxieneko errenta eta dirulaguntzen debateetan ere behin eta berriro agertzen direnak: "Oinarrizko soldata bat ematen badiegu, garapenean diren herrialdeetako herritar denak etorriko dira". Espainiako Estatuari so eginda, adibidez, ez da halakorik gertatu EAEn, erkidego horren Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta estatuko onena izanda ere. Haien ustez eurentzat enplegua duten lekuetara doaz migratzaileak, han lana egingo dutelakoan. Hortaz, aurrekari horiek ikusita, pentsa liteke OErekin ere ez dela zergatik gertatu behar dei-efektu hori. Edo-



### **Crisis y reconstrucción del Estado del Bienestar**

Gorka Moreno Márquez  
**Eusko Jaurlaritza**



### **Renta básica: una herramienta de futuro**

Julen Bollain  
**Editorial Milenio**



### **La renta básica. ¿Por qué y para qué?**

Daniel Raventós  
**Catarata**

Hiru liburu horiek erabili ditugu, besteak beste, LARRUN hau osatzeko. Gorka Morenoren 2008an argitaratu zen eta garai hartan oinarrizko errentaz zegoen ikuspegia islatzen du. Beste biak 2021ekoak dira eta nabarmen ikusten da oinarrizko errenta unibertsalaren kontzeptuan nola aurreratu den, hala nola esperientzia pilotuetan, gizarteratzean edo simulazioetan.

zein kasuan, Mendebaldeko gizarteentzako aberastasunak nahiko dei-efektu egiten du munduan barrena, eta inor gutxi esaten du dei-efektu hori saihesteko aberastasun hori desegin behar denik. Alabaina, Europar Batasunean neurria bultzatzen dutenen ustez, hobe litzateke oinarrizko errenta EB osoan indarrean jartzea, estatu bakarrean baino.

Ezkerrean, oro har, kritikak zeharrikusi handiagoa du enplegua/diru-sarrerak binomioaren kulturaren hausturarekin. Hau da, gizarte modernoan lortutako eskubideak lanaren kulturaren eta langileen borrokatik lortu dira, eta ezinezkoa da pentsatzea pertsonaren askatasuna eta autonomia lanaren mundutik deslotuta lortuko direnik. Sindikatuen munduan oso sustraituta dago ikusmolde hori eta, Iñaki Uribarriek dioenez, euskal sindikatuen artean ESK izan da OE modu tinkoan defendatu duen sindikatu bakarra. Bere ustez, ezinbestekoa da euskal sindikatuekin gaiak berba egitea eta posizioak bateratzea. Eta akaso, lana esan den lekuan enplegua aipatzea litzateke justuena, munduko lan asko edo gehienak ez baitira ordaintzen, hala nola lan erreproduktiboak.

## MUNDU SINDIKALAREN ERAGOZPENAK

Raventós enplegaren, sindikatuen mesfidantzak edo aurkako jarrerak ondoko zazpi arrazoietan laburbiltzen dira, nahiz ez dauden inon horrela idatzita. Bakoitzaren ondoren Raventós enplegaren erreplika erantsiko dugu, eztabaida nondik nora doan erakusteko. Bat, OEekin langileak indarra irabaz dezake, lana hautatzeko posizio hobean dagoelako, baina horretarako berak norbanakoaren posizioak indartzen ditu eta kolektiboa ahuldu, sindikatuek indar kolektiboa gal dezakete; hau da, OEek elkartasun eza bultzatzen du eta irtenbide indibidualak sustatu. Raventós: kapitalaren aurrean langilearen posizioa

indartzeaz gain, greba luzeen kasuan OE erresistentzia kutxa izan daiteke.

Bi, sindikatuetakoa afiliatu gehienek lan hitzarmen finkoa dutenez eta egungo behin-behineko langileek baino soldata hobeagoak, OE eskatzen duen zerga erreforman galtzaile atera daitezke. Raventós: Dagoeneko, garai bateko kontratu egonkorra ez da existitzen, eta sindikatuetakoa afiliatu gehien-gehienak irabazle aterako lirateke gure OE proposamenean [lehenago azaldu dugu]. Hiru, OE erabili daiteke ongizate gizarte desegiteko. Raventós: Bai, hori da OEren eskuineko defendatzaileek nahi dutena, horregatik bereizi behar ditugu haien eta gure OE proposamenak, eta ez pentsatu OE guztiak berdina direnik.



**SINDIKATU ASKORENTZAT,  
OE-REKIN LANGILEAK  
INDARRA IRABAZ DEZAKE,  
LANA HAUTATZEKO  
POSIZIO HOBEOAN  
DAGOELAKO, BAINA  
HORRETXEK BERAK  
NORBANAKOAREN  
POSIZIOAK INDARTZEN  
DITU ETA KOLEKTIBOA  
AHULDU, SINDIKATUEK  
INDAR KOLEKTIBOA GAL  
DEZAKETE**

Laugarren puntua. Enpresariak erabiliko dute OE soldata gutxitzeko, soldaten zati bat estalita dagoen aitzakiarekin. Raventós: Bai, enpresariak saiatuko dira horretan, baina argudio horrek hutsune han-

diak ditu. Argudio berarekin, Italian sindikatuek ez zuten lanbide arteko gutxieneko soldatarik nahi, baina halakorik dagoen herrialdeetan gutxieneko lansari horrek eragozten du enpresariak OE erabili ahal izatea soldata gutxitzeko. Bost, OE orain arte hegemonikoa izan den enpleguaren kulturari kontrajartzen zaio. Raventós: Bai, OE deslotu egiten ditu enplegua eta eskubideak, ez da enpleguaren aurkakoa, ez harekin bateraezina. Lan orduak gutxitzeko aukera eskaintzen du, lan orduak aisialdira edo beste zereginetara bideratzeko. Sei, garrantzitsuena herritar guztiak enplegua izatea da, horrek ematen du duintasuna, gainerakoak aringarriak dira. Raventós: Dudarik ez, mundu guztiak lana izatea eta hartatik duintasuna bikaina da, baina hori ez da gertatzen; beraz, OE irtenbide bat izan liteke egoera hori erdietsi arte? Duintasunarena... bizimodua bermatua izatea, horretarako duintzen du pertsona. Zazpi, gutxieneko bizimodua bermatua izanik, OE lokarraz dezake langileen borroka gogoa, eta enpresariak egin nahi dutena erraztu. Raventós: Egiak, beldurra da borrokarako gogoa kentzen duena, eta beldurra areagotu egin da 2007ko krisiaren eta pandemiaren ondoren. Enplegu osotik zenbat eta urrutiago, lan indarraren egoera gero eta ahulagoa da. OEekin, ahuldade eta beldur horiek ia guztiz ezabatzen dira.

Azaldu dugun lana/eskubideak pentsamolde horren defendatzaile sutsua zen Robert Castel frantses soziologoa: "Historia sozialak erakusten digu norbanakoaren autonomia eskubideen gainean eraiki zela, eta lehenik gainera, lanari lotutako eskubideen gainean". Bere ustez, gaur egun, arazo sozialaren ardatzean lan harremanen eta lan baldintzen degradazioa dago, zeinak borrokatu egin behar diren, eta ez estali. "Gutxieneko errenta horren sustatzaileek uste dute pertsonaren autonomiaren defendatzaile-



DANI BLANCO

le direla, baina nire ustez errenta hori nagusiki izango da menpekotasuna instituzionalizatzeko tresna. Haren onuradunak etsita biziko lirateke, nork erabiliko zain".

Adierazpen horiek *Mouvements* al-dizkariko 2013ko elkarrizketa batean egin zituen, OEren aldeko bi soziologok egiten zizkieten galderei erantzunez. *Viento Sur* aldizkariak itzuli zuen gaztelerara eta elkarrizketak ezkerreko ikuspegian OEren aurka diren posizio nagusienetako batzuk laburbiltzen ditu. Hala amaitu zuen Castel zenak: "Hainbat eskubidek herritar guztiak babestu beharko lituzkete. Adibidez, osasun eskubidea, erretiroa, etxebizitza, formazio iraunkorra... Hau da, oinarritzko halako bost-sei eskubidek osatzen dute pertsonaren independentzia sozialaren oinarria. Uste dut 1.000 eurotan baino, hor dagoela koska, eskubide multzo horretan, lan munduan ematen diren egiazko borroken bidez erauzitakoak".

Ildo horretan dago *Eduardo Garzón* ekonomialari ezkiari espainiarrak egiten duen proposamena. Bere ustez, OEek tentsio inflazionista sortuko luke ekonomian eta, gainera, ez litzateke justua lurraldeen arteko bizi-maila desberdina denean, diru berarekin, hainbat eskualdetan ondasun eta zerbitzu gutxiago eskuratuko liratekeelako. Horregatik, jarraitzen

du, irtenbidea litzateke herritarrak onurak zerbitzutan jasotzea, dirutan baino: etxebizitza, oinarritzko energia, garraio, zaintza, jantziak edota elikagaiak bermatuz. Agian den dena ere ez litzateke zerbitzutan eman beharko eta zati txiki bat -200 euro, adibidez- elikagaiak eta jantziak erosteko izan litezke. Formulazioak hainbat izan daitezke, beti ere garrantzi handiagoa emanez zerbitzutan jaso beharrekoari. Azken buruan, amaitzen du, diruz emandako OE eta egungo sistema ekonomikoa izate berekoak dira; sistema monetarizatu horren funtzionamendua indartzen du OEK eta haren onuradunak merkatuaren atzaparretan uzten ditu, onurak zerbitzutan jasota ez bezala.

Philippe Van Parijs filosofo eta ekonomialari belgikarra izan da OE modernoaren bultzatzaile nagusietakoa 1980ko hamarkadatik aurrera. Honela titulatu zuen OEren gaineko bere artikulua, hainbaten ustez agian probokazio gisa; *Komunismoranzko bide kapitalista bat*. Gaur egun, OEren aldeko mugimenduak argi du eskubide honek ez duela kapitalismoa gaudituko, ez dela horretarako tresna, baina bai eraman gaitzakeela ongizate kapitalismoa gaintzera. Funtsean, OE eskubide-zoru bat dela diote, gaur egun ditugun -osasuna, etxebizitza,

pentsioak...- baina desegiten ari diren beste eskubide batzuen osagarri. Eta azpimarratzen dutenez, zoruaz beste hitz egin beharko litzateke sahaiez, aberastasunaren sabaiak murgatzeko, aberastasun pilaketa handiek demokraziaren eta askatasunen oinarriari eraso egiten dietelako. Gogoratu behar da, Bigarren Mundu Gerraren ondorengo Europako edo AEBetako aberastasunaren aurkako zerga politikek -%80tik gorako tipoak aberatsenen errentei- hori bilatzen zutela, aberatsek estatuetan eragiteko zuten ahalmena ahultzea.

Baldintzarik gabeko oinarritzko errenta ameslarien eta utopikoen proposamena zen duela lau hamarkada. Ondo kostata, zailtasunen artean, bidea egin du gaurdaino, emantzipazioaren lurralderantz orain burua agertuz eta hurrengoan olatupean galduz. Irakurleak ikusi duen moduan, era guztietako iritziak biltzen ditu alde eta aurka, eta ezustean eta krisiek bultzatuta, apurka bide egiten ari da. Egia, oraindik esperientzia pilotu moduan, baina irakaspen ugari eskainiz. Horietako batzuk aipatu ditugu *Larrun* honetan, baina epe laburrean beste dozenaka saio egingo dira munduan barrena. Ezin uka, oraindik asko falta zaio gizartean sinesgarri izateko, herritarrak ezer gutxi daki hartaz, baina saio pilotu horien bidez, ametsa dagoeneko gero eta meharragoa da eta errealtatea gero eta sendagoa. Gorka Moreno Márquez unibertsitateko irakasleak bere liburuko oinarritzko errentari buruzko kapitulu ixteko erabiltzen zituen berbekin amaituko dugu erreportajea: "Sufragio unibertsala ere ez al zen eroen kontua... Nork pentsa zezakeen duela 200 urte oporrak edo erretiroa ekonomikoki babestuak leudekeela? Nork pentsatuko zuen osasuna edo hezkuntza doanezko eskubide sozial unibertsalak izango zirela? Eta etorkizun hurbilean, zergatik ez oinarritzko errenta unibertsala?". ●


# Esperientzia pilotuak

Oraindik ez dago munduan baldintzarik gabeko oinarrizko errenta indarrean jarri duen herrialderik, baina esperientzia pilotu asko egin dira munduko hainbat eskualdetan, eta aurreikusitakoak ere asko dira. Raventósek eta Bollainek euren liburuetan azaldutako esperientzia pilotuen berri emango dugu ondoren, bietan berdintsuak dira eta. Bollainek dioenez, kon-

tuan hartu behar da esperientzia mugatuak direla denboran, populazio kopuru zehatzak hartzen direla, eta zerga erreformen bidez baino, aurrekontuetatik edo dirulaguntzetatik finantzatu direla. Onura ugari ikusi dira OE horiek indarrean jarri diren lekuetan, baina denboran mugatuak direnez, ezin izan da behatu lan merkatuan luzaroan dituen ondorioak.

## Namibia

Biztanleriaren bi herenak pobrezia-aren langaren azpitik bizi dira herrialdean. Oinarrizko Errenta Emateko Koalizioa partzuergoak erabaki zuen herritarrak pobreziatik ateratzeko eta herrialdean inbertsioak bideratzeko 2008-2009an esperientzia pilotua egingo zuela Otjivero-Omitara eskualdean. Azken urtean han bizitako herritar guztiei eman zieten ehun dolar namibiar (orduko errenta per capita-ren %2). Ondoren partzuergoak egindako azterketaren arabera, etxeetako pobrezia maila modu esanguratsuan jaitsi zen, haurren desnutrizioa asko gutxitu zen eta adingabeen eskolaratzea %90ean hazi zen. Delikuentzia tasak %42 jaitsi ziren, eta jarduera ekonomikoa eta merkatuaren aktibazioa hobetu ziren.



## India

2010ean Indiako Madhya Pradesh estatuko 6.000 pertsonari eman zitzairen 24 dolar hileko. UNICEFek, Sewa emakumeen sindikatuak eta Oinarrizko Errentaren Munduko Sareak abiarazi zuten proiektua. Zortzi herrixketako pertsona guztiei eman zitzairen errenta hori, eta ezer banatu ez zen beste hamabi herrixkekin konparatu ziren ondorioak. Etxebizitza inbertsioa %10 handitu zen. Ur hornidura eta argizatzea hobetu ziren, eta elikagaien hobetzeak osasunari onura ekarri zion. Artatze medikuan egindako gastua %50 handitu zen, eta arazo psikologikoak %13,4 hobetu ziren. Ondorio nagusia honakoa da, Raventósen iritziz: "Oinarrizko errenta oso eraldatzailea izan daiteke".

## Bartzelona

2016ko azarotik 2019ko urrira Bartzelonako hamar eremu xumetako mila etxera 17 milioi euro bideratu zituen Bartzelonako Udalak, Europar Batasuneko programa baten barruan. Lau moldetan eskaini ziren dirulaguntzak, eta horien %25 auzoetan gastatu beharreko moneta elektronikoko bidez eman zen. Onurak esanguratsuak izan ziren bizitzako oinarrizko alorretan: ondasunen urritasun handia eta elikadura segurtasuna asko hobetu ziren, bizipozaren handitze agerikoa izan zen, auzotar izatearen sentimenduaren gorakada ere bai, eta baita gertuko merkatarien salmenten hobetzea ere. Espero ziren beste hainbat hobekuntza, dena den, ez ziren frogatu ahal izan, hala nola hauek: osasunaren eta ekintzailtzaren hobekuntza, kalitatezko enplegua eta lan merkatuan parte hartzeko aukerak gutxitu ziren, eta ez dirudi herritarrak ondorio ikusgarriak izan duenik bere aisialdia profitatzerakoan.

## Finlandia

2017 eta 2018 artean egin zen saioa eta Europan gobernu batek antolatzen zuen lehen OE esperientzia zen. Finlandia osoko 25 eta 58 urte arteko auzaz hautatutako iraupen luzeko 2.000 langabeturi 560 euro eman zitzaizkien hileko. Laguntza hori jaso ez zuen beste talde baten egoerarekin erkatu ziren emaitzak. Pandemian zehar atera ziren azterketaren ondorioak eta ikusi zen, buru osasuna, bizitzeko segurtasuna eta bizipoza nabarmen hobetu zirela. Beste taldean baino buru-estres, depresio, tristezia eta

bakardade gutxiago izan zuten onuradunek. Eta lagundutakoek lan merkatuan parte hartze handiagoa izan zuten besteek baino.

## Iran

2011tik 2016ra 72,5 milioi herritarri (populazioaren %96) urteko 500 dolar eman zitzaizkien eta urte batzuetan kopuruak iritsi ziren BPGaren %15era. Dena petrolioaren irabaziekin finantzatu zen. Pobrezia eta desberdintasunak nabarmen jaitsi ziren, eta ez zen inongo ondorio txarrik ikusi lan merkatuan. Hori bai, 20 eta 29 urte arteko gazteen artean lan orduak gutxitu ziren hezkuntza sisteman orduak gehitu zituztelako. Herritarren %20 aberatsenen erosahalmena %5 handitu zen, eta %20 txiroenena %50. Bollainek azaldu duenez, Iraneko herritarrak guztiei banatu zitzaizkien errenta, baina dirua etxeko familia buruaren –nagusiki gizonezkoak– bankuko kontura sartzen zen, eta hori guztiz ezinezkoa litzateke baldintzarik gabeko oinarrizko errentan, non ezinbestekoa den OE pertsona bakoitzari bideratzea. Horrek zaildu zuen antzematea beste kasu batzuetan argi ikusten den emakumezkoen ahalduntzea.

## Alaska

Joan den mendeko 80ko hamarkadan petrolioaren prezioak gorakada handia izan zuen, eta horren ondorioz, 1982an Jay Hammond gobernadore errepublikarrak ekin zion petrolioaren urteko irabazietatik kopuru bat herritar guztien artean partitzeari. Kantitatea desberdina izan da urte horietan, 1984an 326 dolar esaterako eta 2008an 3.269 dolar. Alaska eta

AEBetako beste estatu batzuen arteko konparaketak egin dira, eta ikusten da errentak ez duela eraginik lan merkatuan, Alaskako herritarrak berdin doazela lanera. Hori bai, lanaldi mugatuko langileen kopurua %17 hazi da Alaskan. Hezkuntzan hobekuntzak ere izan dira, batez ere asistentziaren handitzeagatik eta eskola porrotaren txikitzeagatik, eta kriminalitatearen jaitsiera ere antzeman dute. Errenta horri esker, Alaska AEBetako hirugarren estatu berdinzaleena da.

## Katalunian

### abenduan hasiko dira

CUP indar politikoak oinarrizko errentaren plan pilotua garatzea sartu zuen Kataluniako azken hauteskunde autonomikoetako programan, eta ERC eta Juntzen arteko negoziazioetan, plan hori ezinbesteko puntutzat jarri zuen CUPek inbestidura saioan Pere Aragonesi sostengua emateko. Kenian 10.000 pertsonekin egin zen oinarrizko errentaren esperientzi pilotu bat 2011n eta 2012an, orain arteko jendetsuena. Aipatu dugun Finlandiako saioa 2.000 herritarrekin egin zen, eta 2022ko abenduan Katalunian 5.000 bat pertsona hartuko dituen plan pilotuari ekingo diote, 2023an eta 2024an indarrean egongo dena, Sergi Raventós Plan Piloturako Bulegoko buruak adierazitakoaren arabera. Kalkulatzen da urte bakoitzean Generalitateak 50 milioi euro inbertituko dituela esperientzian. Oinarrizko errenta 700-800 eurokoa izango da helduentzat eta 300 eurokoa adingabeentzat. Munduan orain arte egindakoen artean esanguratsuenetakoa izango da proba hori.

# Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio  
finkorik gabe.

Ordaindu  
nahi duzuna.

**Egin ARGIAkoa**

[www.argia.eus/eginargiako](http://www.argia.eus/eginargiako)